

Donostian, 2017ko maiatzaren 18an

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### ULIAKO MINTEGIEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, hil honetan Ogasun Batzordean Uliako Mintegiei buruz egindako interpelazioa dela eta.

### JUSTIFIKAZIOA

Uliako Mintegien lursailaren biziraupena arrisku handian egon da azken urteotan. Lehenbizi luxuzko etxebizitzak eta gero zuzkidura apartamentuak eraiki nahi izatearen ondorioz, galdu edo hondatu egingo zen gune hori.

Donostiako Udalak datozen bost urteetarako Etxebizitza Planean ez du aurreikusita Uliako Mintegien lursailean zuzkidura apartamentuak eraikitzea; beraz, baztertu egin behar da lursail hori arriskuan dagoenik, Uliako Auzo-Elkarteak eta Uliako Lore-Baratzak proiektuak esan bezala. Hala ere, duela zenbait aste hedabideetan argitaratu zen agian Aranzadi elkarteak gune horretan eraiki zezakeela bere egoitza, eta berak egin zezakeela gainerako gunearen kultur eta ingurumen kudeaketa.

Kontuan hartuta eremu horrek zenbateko balioa duen eta zenbateko lana egin duten elkarte eta kolektiboek balio hori ezagutarazteko, azalpenak eskatzen ditugu Batzordean, eta hiru zalantza jartzen ditugu mahai gainean:

- Zergatik da orain Udal Gobernuarentzat lehentasunezko helburua Aranzadi elkartearen egoitzarako gune bat aurkitzen laguntzea, baldin eta legegintzaldi honetako hiru urteetan ez bada gai horri buruzko kezkarik izan?

## Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

- Zergatik du orain Udal Gobernuak parkearen balioa nabarmentzeko kezka, baldin eta lursail horretan lehen apartamentuak egin nahi bazituen, eta horren aurretik luxuzko etxebizitzak eraiki behar bazituen?
- Zergatik, gune horren erabilera definitzeko eta kudeatzeko, Udal Gobernuak ez ditu kontuan hartzen ez auzotarrak ez gaur egun gune hori kudeatzen ari direnak, baldin eta bere gobernu programan bertan hiritarren parte hartze handiagoa aldeztu badu?

Batzordean, hau erantzun zuen alkateak:

- *“Aranzadik Udal honetara jo du, zer beste aukera dituen ikusteko”*
- *“Guretzat, Aranzadi Donostiako udal barrutian geratzea lehentasunezko helburua da, eta hori kontuan hartuta, prest gaude hainbat aukera aztertzeko eta ahal diren erraztasun guztiak emateko”*
- *“Hainbat aukera aztertuko ditugu”*

Antza denez, orain argi dago Udal Gobernuak prest dagoela Aranzadiren egoitzarako zenbait aukera bilatzeko eta proposatzeko, Uliako Mintegien proposamenaz harago.

Hiritarren parte hartzeari dagokionez, alkateak azaldu zuen egin direla bilerak gaur egun parkearen kudeaketarekin lotuta dauden kolektiboekin, eta *in situ* ere egin zutela bisita bat. Baina gauza bat da kolektiboekin bilerak egitea eta tokia bisitatzea, eta beste bat ingurune hiritarrekin parte hartze prozesu bat bultzatzea, gune horren erabilera eta kudeaketa definitzeko.

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal gobernuari eskatzen dio egin eta adostu dezala, udal talde guztiekin, Donostiako udal barrutian Aranzadi elkartearen egoitza jartzeko aukeren zerrenda bat, eta gero aurkez diezaiola zerrenda hori Zientzia Elkarteari berari, azter dezan.

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

2. Donostiako Udalbatzak Udal gobernuari eskatzen dio antola dezala hiritarrek parte hartzeko prozesu bat, auzotarrek eta parkearen erabiltzaileek defini ahal izan dezaten, administrazioarekin elkarlanean, zertarako erabili eta nola kudeatu Uliako Mintegien parkea.

Sin.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.